



Giro beroa sanpedrotan



SAN PEDRO JAI ONAK PASA IZANA ESPERO DUGU !



Bila bazabiltza, hementxe duzu



**GURE
KALITATEA
DASTATU**

gure BETIKO kafea



*Erabateko gutizia aurkituko duzue
gure produktuetan!*

Pablo Mutiozabal 3 • Tel.: 943 364121 • 20160 LASARTE-ORIA



ETXARRI DIGITAL

943361484 Nagusia 17 LASARTE-ORIA

KIOSKO DIGITALA



**SAN PEDRO JAIAK
2009**



ERREBELATU DIGITALEKO MAKINA BERRIA

Errebelatu DIGITALA ORDU ERDIAN
KARRETEEN errebelatua ORDU BETEAN
EZKONTZETAKO erreportajeak
ESTUDIOKO erreportajeak
makina DIGITALAK
30X90 neurrirainoko ANPLIAZIO DIGITALAK
GEURE MARKOAK JARTZEN DITUGU

JAI ONAK PASA IZANA ESPERO DUGU!

GOIEGI

Jatetxea - Restaurante

**Maiatzatik Irailera
gauero* zabalik**

**Asteko menu berezia
ikusteko:**

www.goiegi.com



Irubide bailara 1 · 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa) · T. 943 36 14 04 / 943 37 11 78



Okendo ingurua bizirik mantendu da jai hauetan. Sorgin gunea beteta festa egunetan. Giro beroak lagunduta giro bikaina izan da bospasei egunetan.

Egunen batean zaparradak arindu du gehiegizko giro bero hori. Eta barrutik bustita zirenei bost axola kanpotik ere bustitzeak. Ez da ezer aipagarririk gertatu, beraz ondo joan dira jaiak. Bakoitzak bere erara eta gustura pasa du ondo.



Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarteak, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Jaiak hasi aurretik giroa berotzeko kirol eta musika ekitaldi ugari

Aurten San Pedro Jaiak asteburua hartu dute, eta nabaritu da, asko izan dira kalera atera direnak.

Aurretik ere izan dira ospakizunak; Biyak Bat elkartearen mahai eta mugimendu jokoak, Albokaren kontzertua, Erketzen jaialdia, San Juan sua, etab. Ondorengo orrialdeetan, San Pedroak ofizialki hasi aurretiko ikuskizunak eman dutena argazki bidez laburbildu dugu.



Haurrek primeran pasa zuten ekainaren 25ean egin zen uretako festan.



Sasoian daudela erakutsi zuten Biyak Bat elkarteko kideek gimnastikako erakustaldian.



Ekainaren 26an burutu zen lagunarteko futbol txapelketan 10 eta 18 urte bitarteko 250 gazte parte hartu zuten. Txikien mailan irabazlea Dream Team taldea izan zen, eta bigarrenak Las Fieras. Erdi mailan lehenengoak Las Cigalas, eta bigarren postuan sailkatu ziren. Los Tios Ya. Gazteen maila lehenengoak Los Matos, eta bigarrenak. Dream Team.

SAN PEDRO JAI ONAK PASA IZANA ESPERO DUGU!

MADD MEIER

KARROZERIAK

ORDEZKO IBILGAILUA
Bankada elektronikoa - Kabina labeduna
Informatizatutako kolorimetria

Certified First KIDEA

Oria etorbidea 10 - Brunet pol., 20-21
20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
Tel.: 943 360 617 - Faxa: 943 366 038
maddmsl@iservicesmail.com

Aseguru konpainia guztiekin baimendutako zerbitzua

EVQI

ONDO IBILI IZANA ESPERO DUGU!

AUTOESKOLA IZARRA AUTOESCUELA

www.autoescuelaizarra.com

BEREZKO MULTIMEDIA SISTEMA

BEGIRATU GURE PREZIOAK

GURE TEST-ONLINEEKIN PRESTATU ZAITEZ!

ERABILI GURE SIMULADOREA ETA AURREZTU %10 KLASA PRAKTIKOETAN

Geltoki Kalea, 11 - behean | Lasarte | Tel.: 943377005

adats

ile-apaindegia

SAN PEDRO JAI ONAK PASA IZANA ESPERO DUGU!

Geltoki kalea 3
Mobila: 600 523988
LASARTE-ORIA





Biyak Bat elkarteko abesbatzak emanaldia eskaini zuen Brigitarrenkomentuan.



Alboka, Alboka Txiki eta Txepetxa abestatzek iaksturte bukaerako kontzertua eskaini zuten ekainaren 26an.



Emakumeen Zentro Zibikoko kideek ikasturtean zehar ikasitako batuka dantzen erakustaldia egin zuten.



ANAIAK

JANTZI-DENDA

SAN PEDRO JAI ALAITSUAK PASA IZANA ESPERO DUGU!

Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 362386







Mahai jokoek herritar ugari bildu dituzte Biyak Bateko egoitzeko mahaien inguruan.

Parte-hartze handia Biyak bat elkarteko txapelketetan

Biyak Bat elkarteak hainbat txapelketa egin zituen astean, eta sari banaketa jaien bezperan egin zuten. Hona hemen txapeldunen izen abizenak: musean Jesus Curiel eta Felipe Gutierrez. Tutean, Martin Prieto eta Esteban Vicente. Eskoba jokoan, Inma Andres eta Ascension Etxezarreta. Txintxonean, Candido Pecharroman. Briskan, Angela Vicario, Felipe Gutierrez eta Domingo Mecerreyes. Rabino karta-jokoan Maria Varela. Punttoan Martin Prieto eta Esteban Vicente. Toka jokoan, emakumetan, Esperanza Martinez. Gizonezkotan, Prudencio Olano. Potean, Vicente Martin. Igel-jokoan, Jacinto Acosta.



Garuna lantzeko jokoek gain, mugimendua jokoak ere egin zituzten. Honela, Isla Plazan arratsalde pasa egin zuten toka, pote eta igel-jokoan jokatzeko.



Gustura hartu zituzten Biyak Bat elkartekoek irabazitako sariak Mugimenduzko eta Mahai Jokeen txapelketan.

AA
eralkuntzako materiala

A. Arregi

ERAKUSKETA
Goikale 2
Tel./Faxa:
943 365947

BILTEGI NAGUSIA
Oria etorbidea 6
Tel.: 943 366473
943-370998

JAI ONAK PASA IZANA
ESPERO DUGU!

SEMBLANTE ANDALUZ

GURE ROCIOKO
AMA BIRJINAREN
ERMANDADEAREKIN
BATERA
SAN PEDROKO
JAI ZORIONTSUAK
IGARO IZANA ESPERO DUGU.

Golf plaza 2
Lasarte-Oria
Tel.: 943 363699

UDA BERRI
Taberna

SAN PEDRO JAI ONAK
PASA IZANA
ESPERO DUGU!

Golf plaza 7, behea
Tel.: 943 370410
20160 LASARTE-ORIA



Ekainaren 27a

Motorrak berotzeko aukera paregabea izan zen larunbatean herriko elkarteek, tabernariak eta Sorgin Jaiek antolatutako ekintzei esker.



Beltzak Errugbi taldeak haurrentzako jokoak eta partidak antolatu zituen.



Kaxen errekorra abadiñotar batek egin zuen. Hamasei kaxekin dorrea egitea lortu zuen.



XXIII. Mossó memorialean Ainhoa eta Izkiña taberneak norgehiagoka gogorra jokatu zuten. Azkenenean, Ainhoa gailendu zen 5 eta 3ko emaitzarekin.



Egun osoan zehar egon ziren haurrentzako puzgarriak.

ONDO IBILI IZANA ESPERO DUGU!

Kale Nagusia 34 • Tel.: 943 366000 / 943 366084
Faxa: 943 364700 • 20160 Lasarte-Oria

la Caixa

BIZKER
IMPRESION DIGITAL

JAI ONAR PASA IZANA ESPERO DUGU!

- Inprimategi digitala
Txartelak, Fakturak, Albaranak, Zozketa-txartelak, Kartelak, Katalogoak etab.
- Formatu handiko kartelak eta Argazkiak
Standak, Erakusketa azokak, Ekitaldiak
- Kanpoko eta barruko errotulazioa
Furgonetak, Kamioiak, Toldoak, Saltokiak, Museok...

Geltoki Kalea, 9 - Tel.: 943 36 20 61 - Lasarte-Oria

INSUSTI
Taberna

JAIETAN ONDO IBILI IZANA ESPERO DUGU!

Geltoki kalea 6 • Tel.: 943 361151
LASARTE-ORIA





Munterri-AEK euskaltegiko kideak izan ziren aurten Sorgin Jaietako pregoia egin eta txupina bota zutenak.



Larunbata pijamen eguna izan zen Sorgin gunean.



Lasarte-Oriako txistulari taldeak ere jaietan parte hartu nahi izan zuen eta larunbata eguerdian ibili ziren.



Calvako txapelketan taldeka Lasarte-Oriako Sport Calvak irabazi zuen; jokoetan , berriz, Gasteizeko taldeak eta bakarka, Santos Gimenez sport Calvako kideak.



Okendo plaza itxita egon arren inguruan izan da girorik.



Herriarteko olinpiadak



Abadiñoko euskal dantza taldea ere izan zen Sorgin gunean.



Jesus Olaskoaga Igeltseroa

Aranzubi kalea 12 • 20130 • URNIETA • Tel.: 657 795175

**SAN PEDRO JAI ONAK
IZANA ESPERO DUGU!**

- **Berrikuntzak**
- **Sukaldeak**
- **Fatxadak**
- **Teilatuak**
- **Komunak**





Estreineko aldiz haurrek txupinazoa izan zuten Sorgin gunean.



Pirritxen, Porrotxen eta Mari Mototsen lagunak bat egin zuten Sorgin Gunea larunbat arratsaldean.



Kalean giro bikaina izan zen larunbatean eguraldi onari esker.



QUINTAKOEN KONDONKETA
ZAZPI

**SAN PEDRO JAI ONAK
PASA IZANA ESPERO DUGU!**

Zumaburu kalea 3
Lasarte-Oria
Tel.: 605 706029

BURUNTZ-AZPI

Arrantza eta ehiza elkarte

JAI ONAK PASA IZANA ESPERO DUGU!

Basaundi bailara 9
Tel.: 943 370685
LASARTE-ORIA

SAAPICAS

**Gas-instalazioak,
berokuntza eta iturgintza**

**ONDO IBILI IZANA
ESPERO DUGU!**

Ordutegia
9:00 - 13:00
16:00 - 20:00

**Kale Nagusia 69, behea • Tel: 943 360165
LASARTE-ORIA**

Ekainaren 28a

Igandean, beroa izan zen nagusi. Giro beroa, sorgin dantza beroa, zikiro beroa... Batzuk freskatzeko aukera izan zuten eta besteak, eguraldiaren desioz, busti ziren.



36 gradu markatzen zituen Gil farmaziako termometroak txupinazoa botatzeko garaian.



Arg.: Mikel Berakooetxea



Oriako Txaranga, Erraldoi eta Buruhandiek kaleak alaitu zituzten.



Herritar ugari bildu zen Udaletxe aurrean jaien hasierako txupina ikusteko. Horien artean, euskal preso senideak.



Urteko funtzionarioa aukeratu zuten herri-tarrek *El concursazo* kale antzerkiari esker.




Kantu jiraren euskal doinuek girotu zituzten herriko kaleak.



Sorgin Dantzan musikariak garrantzitsuak dira. Beraiek ere ondo pasatzen dute!



ALBOKA



ABESBATZA
LASARTE-ORIA

JAI ONAK PASA IZANA
ESPERO DUGU!

*Gustuko al duzu abestea?
Zatoz gure artera!*

Tel.: 943 365145 / 943 363656 • LASARTE-ORIA





Herritar ugari blusa jantzi eta oinak astindu zituzten Sorgin dantzaren doinua jarraituz.



Iruñatik etorri zen neska taldea hau Sorgin Dantzan parte hartzera.



Euskal Presoen eta Iheslariak gogoan izan zituzten Sogin jaietan. Horretarako, horien guztien aldeko, bazkaria eta mus txapelketa antolatu ziren.



Giro ederra zegoen uretan sartzeko. Herritar bat baino gehiago inbiditan egongo zen Oriako jaietsiera ikustean.



Ordutegiak medio, ekintzen nahasketa interesgarriak ere egon ziren jaietan. Esate baterako, manifa-batukada.

JAI ONAK PASA IZANA ESPERO DUGU!

ADURIZ DE LASARTE S.A

Loidi kalea 3 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 361278

TIRIKITRAUKI
MUSIKA DENDA

zero sette

Trikitixa eta esku-soinuetan aukera zabala:
Berriak, 2. eskukoak eta alokairuan.

ONDGO IBILI IZANA ESPERO DUGU!

Oria etorbidea 10, 303. bulegoa • 20160 Lasarte-Oria • Gipuzkoa
Tel.: 943 372817 • www.tirikitrauki.com • tirikitrauki@tirikitrauki.com





Masaranduba batukadak herririkokaleak erritmoz bete zituen igande arratsaldean.



Ostean, Poteotx batukadak hartu zuen testigua. Okendo plazan bukatu zuten haien emanaldia.



Pottoken gainean eta bigantxen aurrean korrika primeran pasa zuten gaztetxoek.



Iturberen Omenezko XX. Bola eta Toka- txapelketan 38 bola jaurtitzailerak eta 30 toka jaurtitzailerak aritu ziren nor baino nor.

Bola-joko txapelketari dagokionez, Gipuzkoako txapelketan Jesus Mari Intxaustik leskuratu zuen garaipena eta Lasarte-Oriako txapelketako irabazlea, berriz, Juan L. Lazano izan zen.

Toka-txapelketan, aldiz, Gipuzkoako mailan Antonio Amondarain izan zen garaile eta Iñaki Salsamendi, berriz, lehenengo lasarteoriatarra.



Folklore jaialdian Nafarroako jotak eta Mexikoko rantxerak entzun zituzten Manuel Lekuona kulturetxera hurbildu ziren herritarrek.



Aurten ere zikiro ederra prestatu zuten. Hori bai, urik gabeko iturri barruan!



180 herritarrek dastatu zuten zikiro errea. Nahi adina errepikatzeko aukera izan zuten.

JAI ONAK PASA IZANA ESPERO DUGU!

M ZUBI

LASARTE-ORIA

Geltoki kalea 21 • Tel.: 943 362467 Faxa: 943 372794 • Lasarte-Oria
E-maila: muebleszubi@hotmail.com





Brigitarren komentuko plazan entzun ziren aurtengo lehenengo danbor hotsak. Azkenak, euripean egin zituzten.



Amalur taldeak ederki girotu zuen Zikiroko afal ostea.



Bapo afaldu ostean, dantza osasuntsu mantentzeko.



Sorgin Jaien guneko danborjoleek Okendoko xafletan jo zuten plaza itxi izanaren protestan.



Izugarrizko arrakasta izan zuen Sorgin Jaietako karaokeak. Jende asko animatu zen kantatzera, ahal zutena egitera...



Abibaren diskojakiak dantza jarri zituen gazteak.



ZUMABURU

Karrozeria

KOTXEEN KONPONKETA
TXAPA ETA PINTURA



Erribera kalea 8, atzealdea • Tel.: 943 365844 • LASARTE-ORIA



LASARTEARRA

KIROL ETA KULTUR
ELKARTEA

JAI ONAK
PASA IZANA
ESPERO DUGU!



Erribera kalea 10, atzealdea • Tel.: 943 362997
LASARTE-ORIA



**SAN PEDRO JAI ONAK
PASA IZANA
ESPERO DUGU!**

**CASA
EXTREMADURA**



UZZURRE PLAZA 5 • TEL.: 943372375
20160 LASARTE-ORIA



Gabirondo

ALTZARIAK

ONDO IBILI IZANA ESPERO DUGU!

Jaizkibel plaza 2-14 • Tel.: 943 364007 • LASARTE-ORIA

Euskadiko Kutxa



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

**SAN PEDRO JAI ONAK PASA IZANA
ESPERO DUGU!**

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



Kale Nagusia 21
Tel.: 943 362073

ONDO IBILI IZANA ESPERO DUGU!

AISNORSA



- Beroaren isolazioa txapan, aluminioan...
- Sabaiko eta makinaren saletako intsonorizazioa
- Airearen kanalizazioa txapan eta climaverrean
- PLADURREZKO tabikeak
- Tabernetako intsonorizazioa

Oria etorbidea 8-10, 41 pabiloia
Tel.: 943 366279 • Faxa: 943 372717
LASARTE-ORIA

Ekainaren 29a

Jon Tecedor kirolariari egin zitzaion omenaldia izan zen San Pedro eguneko unerik gogoangarriena. Pisu jasotzailearen alargun, guraso eta sendikoez Udalaren eta herri osoaren omena jaso zuten. Gero arratsalde eta gauz berriro giro beroa nagusitu zen Batzuk sagardo tragoxka batzuekin arindu zuten.



Urtero bezala, jende ugari joan zen Meza Nagusira.



Momentu hunkigarriak bizi izan zituen Jon Tecedorren familiak omenaldian.



Bero ederra egin arren, joaldunak ez ziren kikildu eta beraien betebeharrak ederki burutu zuten.





Erketzeko dantzariak eliza barruan dantzatu ostean, arkuak jarri zituzten irteeran.



Udalak Jon Tecedor izena eramango duen Kirol Beka sortzeko asmoa azaldu zuen.



Harrijasotzailak eta aizkolariak itzal pixka bat izan balute gusturago arituko ziren, hala ere saio ederra egin zuten.



ZERBITZU BAIMENDUA
MAGNET MARELI
AUTOMATEN ERREKORAKA

ELBO

MEKANIKA eta ELEKTRIZITATEA

JAI ONAK PASA IZANA ESPERO DUGU !

Kale Nagusia 68 • Tel.: 943 370191
LASARTE-ORIA

Injekziozko garbiketa (dieselak eta gasolinazkoak)

ILLARRETA ITURGINTZA

Iturgintza
Igeltserotza
Berokuntza
Gasa

SAN PEDRO JAI ONAK PASA IZANA ESPERO DUGU !

Denda: Galtoki kalea 21 • Tel.: 943 363147 • LASARTE-ORIA
Tailerra, iturgintza, igeltserotza:
Ugaldea polig. 3-1 (Lehen Moulinex) • Tel.: 943 361752
USURBIL • linterriarillarreata@yahoo.es

Zubieta Motor, S.L.

- Taxista eta autoeskolentzako zerbitzua
- Ordezko kotxeak, inolako gasturik eta kosturik gabeko
- Eskaintza berezia, era guztietako osagarrietan eta neumatikoetan

ONDO IBILI IZANA ESPERO DUGU !

Kotxe berriak eta okasiokoak salgai!

Oria etorbidea 4, 6. lokala • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 376940 / 360009
Faxa: 943 372689





Arg.: Mikel Berakoetxea

Oraingoan Buruntzazpi Txirrindulari eskolak ziklo-krossa antolatu zien txikiei.



Giro polita jarri zuten trikitilariak Kalejiran. Eguraldiak ere lagundu zuen.



Enee!! Zenbat kasketa eta negarrak postu honen ondotik pasatzerakoan.



AC/DC taldearen kontzertu ederra ikusi ahal izan zen Okendo plazaren inguruan.



Koadrilen eta blusen ohitura mantenduko da, egon lasai, hauek behintzat garbi dute!



Jalgune Elkartea

**GURE AMETSAKO LAGUNOK
OSO ONDO PASA IZANA ESPERO DUGU !**

Erribera kalea 1, behea • LASARTE-ORIA








Pilota partidetara jendea hurbildu zen, nahiz eta ikusteko traketsagoa izan trinketea. Lehenengo partidari Xabi Sancho eta Julen Urruzola 40 eta 17 irabazi zieten Jon Pello Artetxe eta Xabi Arteagari. Bigarren partidari berriz, Aitor Aranburu eta Mikel Landa gailendu ziren 40 eta 30 Enrique Huici eta Aritz Izustabarrenaren aurka.



Txikiak izutu egiten badira ere, buruhandiak eta erraldoiak festen ezaugarri dira.



Nahiko lan egin behar izan zuten Aterpea elkarteak kideek zain zizuten guztiei sardinak emateko.



Egiten zuten beroatik izango zen, baina inoiz baino azkarrago bukatu zen sagardoak.

USURBIL
Garaiea
 KONPONKETAKO TAILERRA

FIAT
 LANCIA
 SERVICIO

JAI ONAK
 PASA IZANA
 ESPERO DUGU!

Zumaburu aparkalekua 18
 Tel.: 943 362463 • Faxa: 943 360360
 talleresusurbiladm@hotmail.com

ARROPADENDA ETA OSAGARRIAK

ONDO IBILI IZANA ESPERO DUGU!

UJA

Nagusia 44 behea • Lasarte-Oria 20160 • Tel.: 943 245760





Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko bertso eskolakoek bertsolariekin afaldu zuten Arrieskaletan.



Saio polita eta bizia eskaini zuten bertsolariak.



Sortutako espektatibak bete zituen Gatibu taldeak. Soinu ekipo sendo batekin urrutira entzuten ziren abestiak.



Laket taldekoek dantzan jarri zituzten ikusle asko.



Sorgin Jaien Gunea etengabe jendez beteta zegoen, asko gainera dantzan. Giro ederrean!



Ze esatek! taldea entzutera gazte asko bildu ziren.

SAN PEDRO JAI ALAITSUAK PASA IZANA ESPERO DUGU!

M. Berasategi

Kafeak



**Beti dago aukera
kafe on bat hartzeko**



INFUSIOAK

- TE BREAKFAST
- TE TXURIA
- TE BELTZA
- TE GORRIA (Pu-Erth)
- TE BERDEA
- TE EARL-GREY
- TE JAVA
- TE CEYLAN
- TE SAPOREAREKIN e.a....

TEINA GABEAK

- MELISA, TILA,
- KAMAMILA, MENTA,
- SAGARRA, ANIXA,
- MAKILGOXO, ROOIBOS,
- e.a...



KAFE ARABIKOA

- PARACATU (Brasil)
- TARRAZU (Costa Rica)
- Betikolonia

**Hipodromo etorbidea 1 • Tel.: 943 361316
LASARTE-ORIA**





**S. PEDRO JAIETAN
ONDO PASA
IZANA ESPERO DUGU!**



**LEIZOTZ poligonoa, D
partzela
Andoain-Urnieta errepidean
ANDOAIN (Gipuzkoa)
Tel.: 943 304300
Faxa: 943 304218
e-maila:
pescanorte@euskalnet.net**

PESCANORTE S.A.

**Mokadu
goxoen txokoa
duzue gurea!**



JOSE AIZPURUA UNANUE S.L. eraikuntzak

**SAN PEDRO JAI ONAK PASA
IZANA ESPERO DUGU!**

- Igeltseritza orokorrean
- Fatxaden estaldurak
- Estalkien berriztatzeak
- Gremioen koordinazioa
- Barne erreformak



Obaba Kalea 29 • Asteasu • Tel./Faxa: 943 696 852 • Mobila: 620 800186

Maitte

B ETELU



**SAN PEDRO JAI ZORIONTSUAK
PASA IZANA ESPERO DUGU!**

- B Gestoria**
- B Aholkularitza**
- B Inmobiliariako
zerbitzuak**
- B Aseguruak**
- B Etxebizitzen**



**Aralar plaza 4 eta 6, behea • LASARTE-ORIA •
Tel.: 943 364886 • Faxa: 943 372117**



Ekainaren 30a

Astlehenean, beroa izan zen nagusi. Haurrek ur askoren beharra izan zuten danborradan, kronoskala egin zutenek sasoiko daudela erakutsi zuten, Sorgin Jainen Gunean dantzan aritu ziren guztiak bezala.



Tren txu txuak makina bat itzuli eman zituen herrian zehar.



Zerbaitetan antzik hartzen al diezue?



Haurrek jaietan hainbat gauza egin dituzte. Irudiotan adibide batzuek besterik ez dira ageri: Danborra jo, ur jokoetan gozatu edota pilotako finalak jokatu.



Mus eta futbolin txapelketak jokatu ziren astlehenean



Jalguneko gazteek ere gogoz jo zuten danborra sanpedrotan.

DANI karrozeria

Trebeak gara kolpe handiak konpontzen

- Kabina labeduna
- Txapak zuzentzeko oinarri unibertsala
- Tapizatuen garbiketa



Zirkuitu ibilbidea 12
20160 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 371440
Mobila: 608 391885



ARRATE
Taberna Jatetxea

PATATA BIZIAK ETA
PLATER
KONBINATUAK

OSO ONDO
PASA IZANA
ESPERO DUGU!

Antxota kalea 5, behea
Tel.: 943 361004 • LASARTE-ORIA

LASARTE

AUTOESKOLA

SAN PEDRO JAI ZORIONTSUAK
ONDO PASA IZANA
ESPERO DUGU!

Kale Nagusia 5 (tarteko solairua)
Tel.: 943 370692 • Lasarte-Oria





Egoitz Zelaia atzeraka egin zuen Zabaletako kronoeskada.



Goitiberek jaitsiera ikusgarriak burutu zituzten Zabaletako aldapan.



Haur, gazte eta heldu, guztiak, parte hartu zuten euskal dantzan.

ALAMANDEGI
TABERNA - JATETXEA

**SAN PEDRO
JAI ZORIONTSUAK
PASA IZANA
ESPERO DUGU!**

Tel.: 943 362849
ZUBIETA (Gipuzkoa)

MAYA
Lentzeria
Kortse-denda

**JAI ONAK PASA IZANA
ESPERO DUGU!**

Hipodromo etorbidea 8 • Tel.: 943 363665

kima
ONDO
IBILI IZANA
ESPERO DUGU!

masaje-lekua

Goyo Martin
Xabier Carbayedra

Kale Nagusia 44 • Tel.: 943 366197
LASARTE-ORIA



Burgor Tools, S.L.



ONDOKA PASA IZANA ESPERO DUGU!



San Marcial plaza 1, beheka • Tel.: 943 364070
Faxa: 943 363333 • burgor@burgor.com



UDABERRI
elkartea

**SAN PEDRO JAI ZORIONTSUAK
PASA IZANA ESPERO DUGU!**



Andatza plaza z/g, beheka
Tel.: 943 371983
LASARTE-ORIA



Alustiza Autobusak
Alustiza Bidaiak, S.L.

**SAN PEDRO JAI ALAITSUAK
PASA IZANA ESPERO DUGU!**

Palazio etxea, Laurgain auzoa • AIA
Tel.: 943 132893 / 830808
Mobila: 656 782999



Jalgin izan zen Happening emanaldiak, Itoiz taldeari omenaldia, arrakasta handia izan zuen. Gogoz geratu zen jendea.



Estrenos taldeak kontzertu berezia eskaini zuen astelehen gauean.

Uztailaren 1a

Azken egunean indarberrituta atera ziren herritarrak eta ordu txikietara arte luzatu zen parranda. Plastic-en kontzertuak eman zion amaiera egun magikoari...



Haurrak liluratu zituen herriko Rafafa magoak.



Festetan autotoxokeak ezin dira falta. Haur, gazte eta helduen gozagarri izan dira noizbait.





Goian Aurka taldekoak eta beste bi irudietan Trikihots taldekoak, asteleheneko kontzertuan.



Hitzartu taldeak ere jo zuten Sorgin gunean, *Eraso sexistarik ez!* zion pankartaren aurrean.



Txikienek ere berain tamainako "quad"-etan ibiltzeko aukera izan zuten.



ONDO IBILI IZANA ESPERO DUGU!

patrizio

Uistin Kalea 1 • Lasarte-Oria

PATRIZIO

SAN JOSE-OLAIZ

JAI ONAK PASA IZANA ESPERO DUGU!

- Kamioien txasia konpontzeko oinarria.
- Industriako ibilgailuen konponketa.
- Aluminiozko eta burdinazko soldadurak.

Ordutegia: 8:30 - 20:30



LOMBARDINI



DIMETAL S.A.

IVECO

ZERBITZU OFIZIALA

**Zirkuitu ibilbidea 6
20160 LASARTE-ORIA
Tel.: 943 361857
Faxa: 943 366508**

MEKANIKAKO TAILERRA

Garcia

AUTOBUSAK

**SAN PEDRO JAI ZORIONTSUAK
PASA IZANA ESPERO DUGU!**

• Edozein eratako bidaiak egiteko zerbitzu aproposak. - Bestelako zerbitzuak.

**Nafarroa etorbidea 32-2.A
(Leku Eder etxea)
Tel.: 943 372737
20800 ZARAUTZ**



Lan handi egin zuten buruhandiek gaztetxoak harrapatzeko. Ez zen erraza izango beroarekin.



Nahiko lan eta komeri izan zuten filma haurrei jartzeko Sorjain Jaiei Gunean.



Badira urte batzuk Egan taldea festetara etortzen dela, hau ere ohitura bihurtuko da.



Barrakak eta tonboleak ere gazte eta heldu biltzen dituzte.



Ederki pasa zuten denek jolasean Sorjain Jaiei gunean!

IRULEGI MILAR

- Etxeko tresna elektrikoak
- Telebista eta DVDak
- DVD-Bideo kluba
- ...

JAI ONAK PASA IZANA ESPERO DUGU!

Beko-Errota 2
Tel.: 943 364450
20160 LASARTE-ORIA

AIZPURUA

Pinturak

ONDO PASA IZANA ESPERO DUGU!

* Pintura plastikoak bereziki.
* Nahi duzun kolorea egingo dizugu momentuan.

Tel.: 943 362153
Zumaburuko industrialdea
LASARTE-ORIA

ABREU

JAI ONAK PASA IZANA ESPERO DUGU!

atenea

Geltoki 2 • LASARTE-ORIA
Idiazabal kalea 32 • URNIETA
Tel.: 943 365846





Maketa lehiaketako herriko irabazleek, Plastic taldeak kontzertu atsegina eskaini zuen.



Son of the Rock taldeak dantzan eta kantari jarri zituen bildutakoak. Lastima gutxi zirela.



DJ Z eta Aritz Sound System Djek giro ederra jarri zuten Sorgin Jaien gunean azken egunean.



Urtero bezala, kale egin gabe festen azken egunean su artifizialak jaurti ziren.

OZTARAN, S.L.

*iturqintza
berokuntza
gasaren instalazioa*

**JAI ONAK PASA IZANA
ESPERO DUGU!**

Tel.: 943 373389 / Faxa: 943 366598
San Frantzisko 4 • 20160 LASARTE-ORIA

**INFORMATIKA
MARTIN MARTINEZ MULTIMEDIA**

**ONDO IBILI IZANA
ESPERO DUGU!**

Ezagutu itzazu
gure eskaintzak,
beste inora jo aurretik!

Uzturre plaza 2, behea • Tel./Faxa: 943 360591
LASARTE-ORIA

JAIETAN ONDO IBILI IZANA ESPERO DUGU!

Bizikleten
salmenta
eta konponketa

MKL txirrindak

Geltoki kalea 25, atzealdea tel 943 36 16 14
Lasarte Oria 20160



Festak amaitua balorazioen txanda da

Jaiak amaitu ostean, antolatzaileek balorazioak egiten dituzte; prestatutako ondo edo gaizki atera den aztertzeko, egindako akatsez ikasteko hurrengoak hobetetzeko asmoz. San Pedro jaiak amaituta beraz, balorazioak eskatu dizkiegu Lasarte-Oriako Udalari eta Sorgin Jaiak Batzordeari. Udaleko balorazioa hemen duzue; Sorgin Jaietako kideak berriz, buru-belarri dabilta festen ondorengoekin beraz balorazioa ostiralerako izango duzue.

Ana Urchueguia alkateak nabarmendu nahi izan du aurtengo jaietako aurrekontua txikiagoa izan bada ere, jaiak ez dira okerragoak izan, eta mailari eutsi zaio. Ondo pasatzeko egunak izan direla, eta aurreikuspen guztiak beteaz, hiritarren parte-hartzea handia izan dela nabarmendu dute. Era horretan, Udalak eskerrak eman nahi ditu programako ekitaldi guztietan izan den giro eta parte-hartzeagatik. Udaletik nabarmendu dutenez, "Gazteria eta Jaietako sailak lan handia egin du herritarrek merezi dituzten jaiak antolatzeko".

Ostalariekin elkarlana

Jaietan ez ezik, aurreko egunetan ere ekitaldiak izan ziren. Udaletik, larunbat gaueko ekintza azpimarratu dute. Alkatearen esanetan ostalariekin elkarlanean, gauen jai interesgarria antolatu zuten motorrak berotzen joateko.

Era berean, ohitura bilakatu diren ekintzak alde batera utzi gabe, jaietan izan diren nobedadeak azpimarratu ditu Udalak: joaldunak, Betizu eta Gatibu. "Era berean, igandeko folklore jaialdiak eta danborradak arrakasta handia izan zuten. Ahaztu gabe, Jon Tecedorri egindako hil osteko omenaldia. Emozioz betetako ekitaldi hunkigarria izan zen". Udalaren ustez, bestalde, ideia ona izan da Aterpeak elkarteak eta Ttakunek antolatzen duten sardina-jana eta sagardo-dastatzea leku

aldatzea. "Udalak utzitako Villa Mirentxuko lorategietan egin zen, eta lasarteoriatar guztiek ondo baino hobeto pasa zuten. Gainera, belarretan esertzeko aukera izan zuten".

Aipamen negatiborik ere egin du Udalak. "Bandalismoarekin lotutako ekintza bat eta gertakari puntualak egon dira, baina espero dugu hurrengo jaietan ez dela horrelakorik izango".

Aurtengo San Pedro jaietako agur esanda, Udaletik espero dute datorren urteko festak hobekiago izango direla, edo berdina behintzat. "Horretarako lanean hasi gara jada".



Lasarte-Oriako Udalak S.Pedro jai zoriontsuak pasa izana espero du.



Irakurleen argazkiak

Aurreko zenbakian, jaietako zenbaki berezian alegia, jaietan ateratzen zituzten argazkiak bidaltzeko eskatu genien herritarrei eta baita hauek bidali ere! Eskerrak eman nahi dizkizuegu zuen argazkiak gurekin konpartitu nahi izanagatik. Urteik urtera gero eta herritar gehiagok bidaltzen dizkiguzue argazkiak; ea datorren urtean marka berdindu edo hausten dugun! Eskerririk asko!



Jende asko bildu zen txupinazoan. Argazki polita alturatik ateratakoa.

Arg.: Mikel Berakoetxea.



Haurrak kalejiran joan ziren Zumaburutik Atsopakarrera herri bazkarira.

Arg.: Loli Razkin.



Atsopakar egoitzan ere beraien txupinazio propioa ospatu zuten.

Arg.: Atsopakar egoitza.

MINHON TABERNA



ONDO PASA IZANA
ESPERO DUGU!

Razioak
Pintxoak

...
Etorri dastatzera!

Kale Nagusia 46 • Tel.: 943 370885

LAGUNAK
Etxebizitzetako, komertzioetako...
instalazio elektrikoak.

ONDO IBILI IZANA
ESPERO DUGU!

Geltoki kalea 6, behea • Tel.: 943 371077 • LASARTE-ORIA

ALMENA

Iturgintza eta berokuntza

SAN PEDRO
JAI ALAITSUAK
PASA IZANA
ESPERO DUGU!



Goikale 3 • Tel.: 943 361786 • LASARTE-ORIA

ABEND

KAFE-ANTZOKIA

Gorzeko bak arte urekuta!!



SAN PEDRO JAI ALAITSUAK
PASA IZANA ESPERO DUGU!

MENUAK

Pablo Mutiozabal 5 • Tel.: 943 372089
LASARTE-ORIA



LIZARRI OPTIKA

JAI ONAK PASA IZANA ESPERO DUGU!



Hipodromo etorbidea 8
(Anbulatoriaren aurrean)
Tel.: 943 366482 • LASARTE-ORIA

ETXEZARRETA

1963-etik

HARATEGIA

**SAN PEDRO JAI ONAK
PASA IZANA ESPERO DUGU!**



Hipodromo etorbidea 2 • Tel.: 943 361379
LASARTE-ORIA



INTZA ELKARTEA



Sagardotegi kalea • Tel.: 943 361534 • LASARTE-ORIA



Ilusio handiz hartzen dute parte hurrek danborradan. Aurten bero ederra ere pasa dute.

Arg.: Loli Razkin.



Mota guztietako ekitaldiak antolatzen dira herrian elkarteei esker.

Arg.: Buruntzazpi txirrundulari eskola.



Egileak ongi dioen moduan, koadrila honek giro polita jarri zuen Okendo inguruan. Mila esker!

Arg.: J. Iparragirre.



Festen amaiera dela ekintza adierazgarrietariko bat, Zezen suzkoa.

Arg.: Mikel Berakoetxea.





Kalerik egin gabe, liño ibili da sinadurak eta argazkiak. Goian batukadarekin eta behean Gatiburekin. Arg.: Iñigo Artola

Aurten lehenengo aldiz atera dira neskak Sorgin Dantzan. Arg.: L. Razkin

JUAN IRAOLA & HIJOS S.L.

ITURGINTZA



**SAN PEDRO JAI ZORIONTSUAK
PASA IZANA ESPERO DUGU!**

ITURGINTZA

GASA

BEROKUNTZA

AIRE GIROTUA



Iñigo de Loiola Kalea 8 behea • administracion@iraola.eu • Tel.: 943 36 0 500 // 652 774679





Arrantzaleen bizimodua erakusgai dantzaren bidez


Gero Axular dantza taldearen asken ikuskizuna da Talaia. Kostaldeko herri batean eta arrantzaleen biziomduan girotutako lana da Talaia. Ia 100 dantzari, 12 musikarik osatzen dute ikuskizuna. Ahaztu gabe soinu eta argi teknikariak, jantzien arduradunak, laguntzaileak...

OSTIRALEAN KULTURETXEAN
22:00ETAN

Egunero

Erakusketa

RAFA ZUBIRIAREN argazkiak ikusgai. Jalgin, egun osoan.



Larunbata, 11

Kontzertua

GRASSMAN, musika beltza. Emanaldia Jalgi kafe-antzokiko terrazan izango da, 19:00etan.

Ostirala, 17

Kontzertua

MIREN, pop euskaraz. Jalgi kafe-antzokian, 22:30ean.



Eskutitzak

Errespetu pixka bat

Udaleko bulego jakin batetik jaien inguruko balorazioak egin aurretik, zein politikak izan diren eta zein ondo ateratzen diren esanez, eta datorren urtera arte jaiak amaitutzat jo aurretik, iradokizun bat egin nahi nuke. Oparizat ematen diren dominak eman ala ez eztabaidatik urrun, "domina" versus "mimoz emandako diploma-gutunaren" artean konparazio ekonomikoa egin nahi izatetik urritu, umeen danborradarekiko errespetu pixka bat eskatu nahi nioke Udalari, ez, ordea, Gazteria eta Jaietako Batzordeari. Azalpenak emango ditut, nire hitzak ez daitezten gaizki ulertu. Txupinazoak, helduen danborradak, Oriako Sorgin Dantzak, badute ohituraz eta urteen poderioz lortutako ordutegi finko bat jaietan. Zergatik ez zaio eusten umeen danborradako ordutegiari? Azken hiru urteetan bi aldiz aldatu da, ordubetek aurreratu. Kontua da, orain arte inork ez zuela ordutegia eztabaidan jartzen, ezarritakoa baitzen (hemerrotekan egindako kontsulta batek hala baieztatu dit). Lasarte-Oria herria izan aurretik ospatzen den klasiko bat da, eta jende asko mugitzen duen ekitaldi bat: umeak, gurasoak, laguntzaileak... Era horretan, jaietan parte-hartze gehien duen ekin-

tzetariko bat da. Horregatik guztiarengatik uste dut, errespetu handiagoa merezi duela. Errespetua eta parte-hartzaileekiko babesa, kasu honetan haurrak, aurten bero jasan ezinari aurre egin behar izan baitzioten. Eta inolako dudarik gabe, ordubete beranduago askoz bero gutxiago egingo luke. Ez didate balio, ordu berean haurrentzako ekintza bat zegoela eta danborrada ordubete aurreratu beharra zegoela dioten aitzakiek. Eta ez dit balio, ekintza hori ez zelako dohainekoa, kalean egitekoa eta haur guztiek ez zutelako aukera ekintza horretan parte hartzeko.

Nire eskaera eginda, espero dut kontuan hartuko dela, izan ere, krisitik, aurrekontu murrizketa eta kolore politikoetatik hara-tago doa.

Nire asmoa ez da lis- kar epistolarretan hastea. Erantzun didatela pentsatu dut, nire iradokizuna kontuan hartu eta datorren urtean betetzen bada. Izan ere, nire asmo bakarra, danborradaren garrantzia finkatu, lehengora bueltatu eta mantentzea da. Eta, batez ere, txikienen one- rako dela pentsatuz.

Rosa Bell Ausin

Oharrak

Igerileku txikia itxita

Haurtxoentzat antolatutako diren Igeriketa ikastaroak baldintza egokietan garatu daitezten, uztailaren zehar asteartean, ostegunetan eta larunbatetan, goizeko 10:00ak eta 10:30ak bitartean igerileku txikia erabiltzaile ororentzat itxita egongo da.

Sorgin Jaien zozketa

Sorgin Jaiak zozketatzen zuten bi pertsonentzako afaria 428 zenbakia egokitu zaio. Saria eskuratzeko jarri zaitezte harremanetan -jaietako batzordearekin sorgin- jaiak@gmail.com helbide elektronikoa.

Udako ordutegia

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuko kirol guneek udako

ordutegia izango dute uzta- latic aurrera. Honela, kirol- degia astean zehar, goizez 7:00etatik 13:00etara eta arratsaldean 17:00etatik 22:00etara egongo da irekia, baina igerilekua eguerdian 12:30ean itxiko da eta gaue- tan 21:30ean, larunbatetan goizez bakarrik egongo da irekia 9:00etatik 13:00etara.

Bulegoari dagokionez, astean zehar soilik egongo da irekia, uztailean 10:00etatik 12:00etara eta arratsaldean 17:00etatik 19:00etara eta abuztuan 10:00etatik 12:30etara. Kirol gunearen ordutegia, bi hila- beteetan, astean zehar 10:00etatik 12:30etara eta 17:00etatik 21:00etara eta larunbatetan 9:00etatik 13:00etara.

Pinturako eskolak

Uztailaren Tetik aurrera udako pinturako eskolak hasiko dira "Estudio del Pintor" egoitzan. Eskolak haur- rentzako dira, prezio ekonomikoan, goizez astele- henetik ostiralera. Urko plaza 1 behean, 620 465 474.

Txakurra galdu

Astelehenean txakurra galdu zen Kotxeras-kaskarro eremu- an. Setter ingeles arra da, zuri-laranja kolorekoa eta txipa eta tatuatu ditu. Norbai- tek ikusi edo aurkitu badu, mesedez dei dezala zenbaki honetara, 605 752 332.

Santa Ana parodiako akto- re izateko

Aurtengo Santa Ana parodian parte-hartu nahi baduzu;

aktore moduan (testuarekin edo gabe), atrezzoan, deko- razioan edo/eta jantziekin lagundu nahi baduzu, jo Ttakuneko bulegora (Geltoki kalea 4), deitu telefonoz 943 371448 edo bidali mezua bat helbide honetara: kultura@ttakun.com.

San Pedrotako argazkiak

Aurtengo jaietako argazkiak ikusgai egongo dira www.txintxarri.info web orrialdean gaurtik aurrera.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@ttakun.com
txintxarri@txintxarri.info
www.txintxarri.info

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkaria. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).



LUIS CAR

autobusak

JAIETAN ONDO PASA IZANA
ESPERO DUGU!



- Espainiako eta nazioarteko garratio-zerbitzuak.
- Enpresentzako, ikastetxeentzako...zerbitzuak.
- 15 plazako microbusak.
- 55 plazako autocarrak.
- Elbarrientzat behar bezala prestatutako autokarrak.

Uzturre plaza 1 Tel./faxa:943366316 Mobila: 629461897 LASARTE-ORIA



JAIETAN ONDO PASA IZANA
ESPERO DUGU!




GELTOKI KALEA 4 BEHEA
LASARTE-ORIA • Tel.: 943 3777024



IZARRA BITXITEGIA

JAIETAN ONDO PASA
IZANA ESPERO DUGU



www.izarrabitxitegia.com

IPARJOY[®] A.I.E.



Geltoki kalea 19, Tel.: 943 371384 • Juan XXIII.a plaza, z/g, Tel.: 943 364945

